

noaua

Jai-giroa nagusi
Santuenean

Dantza Taldea ere,
martxan

Igande honetan
Baxurde Krossa

Ostiral honetan, *Jendartean bidaide* antzezlanaren estreinaldia

**“Modu batera edo bestera,
denok gara menpeko”**




*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31



SAGARDOTEGIA



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

**·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)**

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €_{tik}



**12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditzen

Atxegako parkea konponduko du Udalak

4 0.000 euroko diru partida bat zuen Usurbilgo Udalak, Agerialde pareko Alperro-buru kalea konpondu eta oinezkoen bidea egiteko. Aurreikusitako proiektuan ordea, gastuak gehitzen hasi ziren. Proiektua garaiz bukatu eta igaro den udako oporraldi hau baliatu nahi zuten lanetarako. Baina ez die denborarik eman. Egokiagoa ikusi dute horregatik, irailaren 10ean egin zen ezohiko osoko bilkuran Alaitz Aizpurua zinegotziak zioenez, proiektua bukatu, 2016ko aurrekontuetan txertatu eta lanak hurrengo udan bideratzea.

Kreditu aldaketa

Eta erabaki horren harira dator, gobernu taldeak azken osoko bilkurara eramandako honako proposamena; 5. kreditu aldaketa. Aldaketa honen bidez, aipatu diru partida Agerialde atariko kaleko lanetara bideratu beha-



Proposamena behin betiko eta aho batez onartu zuten aurreko asteko plenoan.

rean, beste proiektu bat gauzatzeko baliatuko du gobernu taldeak. Tren geltokitik Atxega Jauregira doan parkea

berritzera hain zuzen. Proposamena behin betiko eta aho batez onartu zuen udalbatzak, azken plenoan.

Laburrean

1946an jaiotakoen kinto bazkaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean batzeko deia egin dute. Izen emateko Laurok dendara gerturatu beharra dago, edo deitu bestela 943 363 448 telefono zenbakira. Apuntatzeko azken eguna urriaren 10a izango da.

'Kalekumeak' argazki erakusketa Artzabalen

Egilea ezaguna dugu; usurbildarra, Ion Markel Saez de Urabain. Telefono mugikorraz baliatuta, "kaleari lapurtutako irudiak" batu ditu erakusketan. Artzabalen izango dituzue ikusgai, urriaren 25era arte.

Palestinako lurralde okupatuen oihartzuna

Sutegin topatuko duzue "Emakumeen arteko sareak ehunduz, Palestinako lurralde okupaturako bidaia" izeneko erakusketa. Irailaren 20ra arte egongo da bertan ikusgai, eta emakumeek Palestinan bizi duten egoera islatzen du.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Inposatu edo zigortu?

Azkenean eraikiko dute edo ez? Zalan-tza, baten baino gehiagoren ahotan da azken aldian. Lau urteotan auzia ia lurperatua zegoela zirudien, lanak bertan behera utzita, eta argi denez, denok lasai. Ez dut behintzat ikusi inor kalean, etxe ondoan errauts toxikoak airera isurtzen dituen tximinia zaharrik nahi duenik eskatzen protesta ekintzaren batean. Edo zergatik ez, izan zitekeen eta, exijitzen.

Duela lau urte atzera goaz berriz? Aldundi berritik diotenagatik bai. Foru Aldundi berriaren legealdiko progra-

mako ardatzetako bat, “zaborren” (eta ez hondakinen) kudeaketa izango omen da. Solidarioak izan nahi dute, gai-kako bilketa %80tik gora izan nahi ez duten Gipuzkoako udal-lerriekin. Laguntza eskainiko zaio nahi duenari, atez atekoa kentzeko.

Elkartasunetik, sarri elkarri aurpegiartzeko baliatzen den jarrera inposatzailera. Tarte handirik ez omen da antza. Bosgarren edukiontzia jarriko omen dute, inori galdetu gabe. Erraustegia eta beharrezko gainerako azpiegiturak eraikiko omen dituzte, orain arte bezala, inori galdetu gabe. Nahiz jakin, azken hamarkadan zenbaez-

nak izan direla, herritarrek proiektu honi ezezkoa emateko eginiko mobilizazioak. Nahiz jakin ezezkoak baduela mugimendua Gipuzkoan, eta ez dela bizkar emateko modukoa. Azken mobilizazioa aurreko igandean, Kontxan egindako giza-kate luze eta jendetsua.

Non ote agintera heldu berri-tan, aurreko legealdiko kudea-tzaileez, jarrera inposatzailea agertu dutela dioten elkarrizketarako borondatea? Erakunde guztiek hartzen dituzte egunerokoan mila erabaki herritarrei galdetu gabe. Eta bai, neurri horiek aplikatzerakoan batek baino gehiagok esan dezake, hau edo beste inposatzen ari

direla. Inposaketa zer den, zer irizpideren arabera inposatu, argi da, inoiz ezin gaitzke izan objektiboak kontutotan.

Herritarrei une oro galde-tzen ibili gabe, egunerokoan hartzen diren erabakiak inposaketatzat jotzen badi-tugu, kasuotan, kontua ez da inposatzea edo ez. Zer, nola eta zertarako baizik. Erraustegia defendatzen dutenentzat jakin beharko lukete ez dela gauza bera herritarrek hondakinak ahalik eta gehien birziklatzera derrigortzea, edo bizi osorako nahi ez du-ten ke kutsakorrek irenstera zigortzea.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue

Masusta zaleak batzen



Gehitzen doaz zaletuak, eta talde ki-deak. Masusten Kofradia indartzen ari den seinale, aurreko ostiralean

Txirristan ospatu zuten kantu afaria. Iruditzen dituzue masustari gorazarre egiten dien kofradia. Giro ederrean

ospatu zuten, Arantzazu Ugarte he-rritarra bilguneko kide berri izendatu zuten hitzordua.

Langabeziak gorantz egin du berriz ere

Abuztuan, 322 langabetu zen-batu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak Usurbilen. Uztailean baino 16 langabetu gehiago. Oraingoan, gorakada bereziki gi-zonezkoen artean eman da.

Gizonezko kontratatuak, emakumeen bikoitza

Langabeziak gorantz egin duen artean, kontratazioa dezente jaitsi da. 482 kontratu erregistra-tu ziren uztailean, 319 abuztuan. Ia denak, 463, aldi baterako. Kasu honetan ere, gizonezko eta emakumezkoen arteko aldea nabaria da. Erregistraturiko 211 kontratu gizonezkoenak izan zi-ren, emakumezkoenak, 108.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 25. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 21.

Zinegotzi eta udal taldeen ordainsariak, finkatuta

Zinegotzi bakoitzak 1.320 euro jasoko ditu urtean, udal talde bakoitzak urteko 4.800 euro eta liberatuak ez dauden zinegotziek, buruko "Plenoko, Tokiko Gobernu Batzarreko eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretarataratzeagatik", 50 euro. Guztira, urteko 31.560 euro bideratuko ditu Usurbilgo Udalak, gastuotara.

Hala izatea erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz, irailaren 10eko ezohiko osoko bilkuran. EH-Bilduk eta EAJ-PNVk babestu zuten proposamena, PSE aurka agertu zen.

Erabakitzeke zegoen gaia

Ekaina amaieran izan zen legegintzaldi honetako lehen osoko bilkuran, besteak beste, hurrengo lau urteotarako osatu beharreko udal batzordeak, Udalak beste erakundeetan izan beharreko ordezkariak edota udal ordezkarien liberazioak zehaztu eta onartu ziren. Onartzeke geratu ziren ordea, zinegotzi eta udal taldeek jaso beharreko ordainsariak. Bilkura hartan, EAJ-PNV-tik oposizioak dedikazioa eskatzen zuela baina EHBilduk pleno hartara eramandako proposamenean dedikazio hori ez zegoela islatua aipatzen zuten. Gobernu taldetik, gaia aurrerago lantzekotan geratu ziren.

Eta hala egin dute hilabeteotan. Ordainsarien inguruko proposamen bat landu du gobernu taldeak, EAJ-PNV-k eginiko eskaerari erantzuz.



Adostasuna nagusi izan zen irailaren 10eko osoko bilkuran.

nez, jeltzaleekin negoziatu dutena. Proposamenaren alde ziren beraz irailaren 10eko plenoan, bi udal taldeak. PSE aldiz aurka. Fermin Orue-Echevarria bozeramaile sozialistak dietak ehuneko ehun igotzea proposatzen ari zirela adierazi zuen. Alkateak, inguruko udaletakoak baino askoz txikiagoak direla erantzun zion. Gaineratu zuenez, hasieran ez ziren proposamen horren aldekoak, baina azkenean osoko bilkurara ekartzea erabaki zuten. Legealdiko adostasunetara heltzeko keinua zela adierazi zuen alkateak.

Oinarritzko Lanbide

Heziketa, Udalaren esku

Eusko Jaurlaritzarena zen eskumena Udalari eskuordetzeko akordio proposamena aho batez onartu zuen udalbatzak, irailaren 10erako deitu zen ezohiko osoko bilkuran. Eskuordetzera 2020. urtera arte da,

bost ikasturtetarako beraz. Irakasle eta gainerako langileen, funtzionamendu edota mantenu gastuei aurre egiteko urtero diru-laguntzak jasoko ditu Udalak. Gobernu taldearen esanetan, laguntza hauei esker, gastu gehienak ehuneko ehuneko finantzatzeko modua izango dute. Ikasturte berri honetarako esaterako, 304.692,73 euroko laguntza jasoko du.

Atalluko Prestakuntza Zentroan sukaldaritza eta ile-apaintzaile izateko ikastaroak eskaintzen dira. Azken plenoan zehazten zen moduan, "ohiko sistemak kanpoan utzitako" 15-17 urte arteko 60 bat ikasle ditu egun, lan taldeaz gain.

Garrantzitsutzat jotzen dute gobernu taldetik, Oinarritzko Lanbide Heziketa izaten segitzea, eta orain arte lanean aritu den taldearekin aurrera jarraitzea. "Oso emaitza txukunak lortzen dira" eta, ezohiko osoko bilkuran nabarmendu zuten.

Ile-apaintzaile irakaslea behar dute

Ikasturte honetan bertan lan egiteko litzateke, Atalluko Prestakuntza Zentroan. Deitzaileak, Usurbilgo Udalak, bidez batez, lan poltsa sortu nahi du:

■ Titulazioa eta/edo akreditazio profesionala:

-Irudi pertsonalaren lanbide arloko teknikaria eta goi-mailako teknikaria.

-Irudi pertsonala lanbide-arloko 3. mailako profesionaltasun ziurtagiria izatea.

-1. mailako ile-apaintzaile ofiziala izatea.

■ Irakasle bezala esperientzia:

HLPPetan, Enplegurako Lanbide-heziketan edo hezkuntza sisteman irakasle bezala esperientzia izatea.

■ Euskara: 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea.

■ Iraupena:

2015/09/28tik -2016/04/22 arte. Lanaldia: %62,5. Ordainsaria: Usurbilgo Udal hitzarmenaren 10. maila.

■ Eskaerak: lanbide.eus (2015eko irailaren 18ra arte).

■ Hautaketa:

Lanbide proposaturiko hautagaiekin, Atalluko Prestakuntza zentroan. Froga praktikoa, froga teorikoa eta elkarrizketa burutuko dira.

■ Informazioa: 943 371 951.

■ Deitzailea: Usurbilgo Udal.

Langabetuak kontratatatzeko deialdia enpresentzat

Laguntza deialdia eskualde mailako udalek eginikoa da, tokiko enpresei zuzendua. Guztira Lanbidek finantzaturiko 110.250 euroko laguntzaz ari gara. Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da, 2016ko martxoaren 31 arte, Andoingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Saileko bulegoan; La Salle etorbidea 6, Urigain etxean. Kontratazioak 2016ko maiatzaren 31ra arte egin ahalko dira. Azken egun hau "baino lehen

amaitu beharko dute kontratuaren lehendabiziko 6 hilabeteek". Eginiko kontratazioen arabera, 3.000-6.000 euro arteko laguntza jaso dezakete enpresek.

■ Argibide gehiagorako: enplegu@usurbil.eus edo 943 371 951 (Josune Mujika).

Hiri eta industria hondakinen kudeaketa ikastaroa

Lehentasunez langabetuei zuzenduriko ikastaro berri hau, irailaren

28an abiatu eta hiru hilabetez luzatuko da. Usurbilgo Udalak antolatuko da Lanbidek diruz lagundutako prestakuntza saio hauetan izen emateko epea zabalik egongo da irailaren 16ra arte. Ikastaroan parte hartzeko "ezinbestekoa izango da, hezkuntzako lehen etapa, eskola-graduatu edo honen baliokidea izatea".

■ Informazio gehiago: Usurbilgo Udal (943 371 951, Josune Mujika).

Matrikulazioa HHI-EPA-n

Oinarritzko prestakuntza, etorkinentzako programak, hizkuntzak, unibertsitate eta goi mailako zikloetarako sarbide proben prestakuntza, ekintza osagarriak...

■ Goizez: astelehenetik ostiralekera, 11:00etatik 13:00etara.

■ Arratsalde: astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara.

■ Ikastaroak doan, Agerialden.

■ Telefonoa: 943 361 273.

■ Email: 012734aa@hezkuntza.net

Santuenean, parrandarako gogoz

Aidez aurreko lan guztiak eginda, prest da Santuenea ostiralean festak hasi eta igande gauera arte, 48 orduko parrandara gerturatu nahi duen oro esku zabalik hartzeko. Auzotarrak gonbidatu nahi dituzte antolatzaileek festa gunera, gazteak bereziki. Horretarako berritu eta indartu nahi izan dute jaietako larunbat gaua, bertso afari musikatu eta kontzertu gauarekin. Baina badira auzoko festei loturiko kontu gehiago ere, hiru kideri egin diegun inkesta honetan adierazi digutenez.



Ostiral honetan, arratsaldeko 17:00etan piztuko dute jaietako itxaferoa. Ondoren hasiko da globo gerra.

1-Jaiotan galdu ezin dugun hitzordua...

2-Zer ekarpen egiten diote jaiek Santueneari?

3-Egoki funtzionatzeko duen jaietako alderdi bat, eta hobetu nahi zenuketen beste bat.

JOSU FURUNDARENA

■ 1- Larunbateko Bertso afari musikakua.

Urtetik urtera jende gutxiago zeto-

rrela ikusita, afariko prezioa zertxobait merketzea erabaki dugu aurten, eta afaria herri mailara begira antolatzea. Gazteak animatu nahi genituzke, gero parrandan bertan geratu eta jaiak girotzeko.

■ 2- Santuenea nahiko auzo anitza da, eta auzotar guztien parte hartzea bermatzen saiatzen gara. Denentzako eta denen gustukoak izango diren festak antolatu nahi izaten ditugu.

■ 3- Aurreko urteetan antolatzailerik taldea murriztu zen. Aurre-



ten adibidez jende dezente gaitz biltza taldean. Ardura gehiena gutxi batzuegan utzi beharrean, festetan lanak banatzea lortu dugu. Lan talde indartsua osatu dugu.

ANDER OSA

■ 1- Beste auzoetan ospatzen ez den ekitaldia; globo gerra.

Festen lehenengo egunean egiten da eta gazteentzako nahiz adinguztietako herritarrak parte hartzeko ekintza dibertigarria izaten da.

■ 2- Festak antolatzen hasten garenean beti saiatzen gara, denentzako ekintzak antolatzeko. Denengan pentsatuz, haur,



gazte nahi helduegan, guztiek parte hartzeko. Ekitaldiak antolatu eta denok ondo pasa dezagun.

■ 3- Piper edo sardin janean, jaietako ekintza ezberdinak antolatzen Santueneko elkarteak duen garrantzia azpimarratu nahi nuke. Herri bazkaria eurek adosten dute. Edozer falta dela haiek beti laguntzeko prest daude eta festen zati handi bat dira.

JON OSA

■ 1- Larunbateko kontzertu gaua.

Aurreko urteetan DJarekin ez zen guk nahi bezainbeste jende etortzen.

Aurten larunbat gauean jende gehiago erakartzeko, herriko taldeen kontzertuak ostiralean antolatu eta



kontzertu "handiak" larunbatean ekarriko ditugu.

■ 2- Urtean zehar hainbeste ikusten ez dugun jendea, lagun koadrilak, familiak, denak asteburu horretan biltzen dira eta horrek poztasun handia ematen dio auzoari. Auzotarren arteko harremanak sendotzen eta auzoa lotzen laguntzen du.

■ 3- Jende dezente gaude Jai Batzordean. Soziedadeak laguntza handia ematen digu. Horrez gain, Santueneko guraso talde batek globo gerrako globoak puzten ditu, guri lana asko erraztuz. Eta jende anonimo asko dago festak aurrera ateratzen laguntzen diguna. Guztioi esker, nahiko ondo funtzionatzeko duen lan talde handi bat osatu dugu. Urtero hala segitzen badugu laguntzen, urte askotan festak ondo aterako dira.



15-16 Ikasturtea
LASARTE-ORIA Udal Euskaltegia
Irailaren 1etik 15era matrikula zabalik

Beheko kale bidea 1, ☎943 361 621 euskaltegia@lasarte-oria.eus

Santueneko festak, jai egitaraua

Irailak 18 ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragoxkan.

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak eta Txaranga.

19:00 Sardina jana txosna aurrean.

23:00 Kontzertuak: Odolaren Mintzoa, Izeberg eta Erokomeri Erromeria.

Irailak 19 larunbata

11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.

13:00 Buruhandiak.

14:00 Haur bazkaria (Norberak bere bazkaria ekarri eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea). Bikoteko: 20 euro.

Sariak:

1.saria: bi txapel, bi trofeo, bi marisako lote, onddo otar bat, bi urdaiazpiko paleta, bi txanpain botila eta bi pertsonentzako afaria.

2.saria: bi trofeo, zortzi txuleta, bi gazta eta bi txanpain botila.

3.saria: lau txuleta eta bi txanpain botila.

San Praixku Egunez, ekitaldirik ez Aginagan

#Kilometroak15 eguna urriaren 4an ospatuko da, San Praixku egunez hain zuzen. Ondorioz, Aginagako Jai Batzordeak lehen igandean ekitaldirik ez antolatzea erabaki du. San Praixku eguneko meza eta hamaiketako egun bat aurreratu dute, larunbatera. Aipatu ekitaldiok batera, urriaren 2an eta 3an zenbait kirol txapelketen finalak ospatuko dira. Jaietako hitzordu gehienak halere, urriaren 9tik 12ra izango dira.



Larunbatean, Altxatu eta Tania de Sousa-ren kontzertua. Argazkia: Goiena.

4.saria: baserriko bi oilasko eta bi txanpain botila.

16:00 Haurrentzako puzgarriak eta Kar Pista.

17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.

19:00 Buruhandiak.

20:30 Bertso Afari Musikatua.

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen, Manex Mujika eta Arkaitz Oiartzabal "Xamoa".

Gai jartzailea: Haritz Casabal.

Musikariak: Urtzi Olaziregi (baxua), Igor Arruabarrena (kitarra) eta Eneko Sierra (saxoa).

Ondoren, kontzertuak: Altxatu, Tania de Sousa eta Itzartu Erromeria.

Irailak 20 igandea

11:00 Toka txapelketa.

12:00 Hamaiketako txosnan.

14:00 Herri bazkaria.

17:30 Gorritiren Showa.

Ondoren, buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

Gaztelekua zabalik da berriz ere

Ohiko erabiltzaileentzat, nahiz lehen aldiz bertaratu nahi dutenentzat ere:

■ Astelehena

DBH 3-4 / BATX: 16:30-18:00

DENAK: 18:00-19:30

■ Osteguna

DBH 2: 16:30-18:00

DENAK: 18:00-19:30

■ Larunbata

DBH 1: 16:00-17:30

DENAK: 17:30-19:00

Informazioa: gaztelekua@usurbil.eus

Esperientzia Eskola zabalik berriz

55 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako Esperientzia Eskolak abiatu du ikasturte berria. Saioak, orain arte bezala, astearte arratsaldero izango dira, Artzabalen. Izen emateko gerturatu Gizarte Zerbitzuetara edo deitu 943 377 110 telefono zenbakira.

"Usurbilgo Esperientzia Eskola 55 urtetik gorako Usurbilgo herritarrek, lan mundua utzi ostean, esperientziak landu, elkar-trukatu eta ezagutza berriak eurenganatzeko proiektua da", eskolako arduradunek nabarmendu dutenez. Partaideen garapen pertsonala sustatzea du helburu, ikuspegi fisiko, psikiko eta sozial batetik. Bide bertsutik, taldeak herri-mailan eta gizartearen eragiteko duen ahalmena ere lantzen da; hau guztia errealitate soziala aztertze-ko eta interpretatzeko bitartekoak emanaz. "Hala, ikasturtea iraila eta ekaina bitartean luzatzen da, eta asteen bi orduko saio solteak antolatzen dira, astearte arratsaldetan, Artzabalen".

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari txapelketako lehian

43 bertsolari lehiatuko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, tartean, Asier Azpiroz zubietarra. Eta gai-jartzaileen artean, Inaxio Usarralde arituko da. Hiru hila-beteetan zehar, 15 bertso saio ospatuko dira. Final zortzirenetako bat Lasarten izango da, irailaren 27an 17:30ean.

Zortzi bertsolari onenak, Donostiako Illunbeko finalean abestuko dute, abenduaren 20an.

Informazioa: bertsozale.eus

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA



Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Giza-kate luzea, errausketaren aurka

Errausketarik ez! zioten globo, pankarta eta txartelekin parte hartu zuten herritarrek aurreko igandean Kontxako hondartzan egin zen mobilizazioan; usurbildar eta zubietarrek tartean. Herritarrek bakarrik ez, eragile talde zabalak babestu zuen giza-katea; besteak beste, Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundea, Eguzki, Ekologistak Martxan, Zero Zabor, Donostia Bizirik, Greenpeace, EH Bildu, Ezkerra, Ezker Anitza, Irabazi, Equo, Andoain Irabazi, Podemos, ESK, CCOO, LAB, ELA, CNT, CGT, STEE-EILAS, Gazte Abertzaleak...

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietako erraustegia eraikitzeke agertu duen asmoaren aurrean, halako azpiegiturarik inon ez dutela nahi



Aurreko igandean, jende asko batu zen Kontxako hondartzan.

adierazi zuten beste behin, eta aldiz, ekonomikoki nahiz ingurumenaren ikuspuntutik jasangarriagoak diren alternatibak badirela gogorarazi zuten. Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundetik, gai honen inguruko galdeketa egitea sustatuko dutela iragarri dute.

Errauste planta eraikitzeke asmoa Legealdiko ardatzak azaldu zituen pasa den astelehenean Markel Olanok, Gipuzkoako ahalzun nagusiak. Aurreratu zuenez, errauste planta egingo dute, bosgarren edukiontzia hedatu eta atez atekoa kendu hala eskatzen duten herrietan.

Elkartasunezko jarrera izateko eskaera, errefuxiatuen egoerari erantzuteko

Etenik gabe ikusten ari gara egunero, sorterrian bizi duten gudetatik edo krisi humanitario edo ekonomikoetatik ihesi, Europa aldera babes bila datozen milaka herritarren irudiak. Erakundeak errefuxiatuoi harrera egiteko neurriak hartzen hasiak dira. Bide horretan sakontzeko deia egin du Usurbilgo Udalak, irailaren 10ean egin zen ezohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuten adierazpen instituzionalaren bidez.

"Tragedia honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezaten eta haren ondorioak arintzeko eskura

dituzten bitartekoak bidera ditzaten eskatzen die", Udalak. Modu berezian Europar Batasunari, adierazpenak dioenez, "erantzunkizun garbia du errefuxiatuen exodoa eragin duen Ekialde Hurbilaren desorekatze egoeran". Onartezintzat jotzen dute "Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoen isiltasun mingarria" eta "alanbre hesiez eta jazarpen militarraz" erantzutea.

Tokiko sare bat egituratzearen alde agertu da Usurbilgo Udalak

Errefuxiatuen harrerari aktiboki inplikatzeko konpromisoa hartzen du Usurbilgo Udalak eta baita bes-

te udalekin, Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzeko, "errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko".

EHBilduk aurkezturiko adierazpen instituzionala, udal taldeen artean adosturiko proposamen bateratua da. EAJ-PNV eta PSE-ren ekarpenak ere jasotzen dituena. Xabier Arregi alkateak nabarmentzen zuenez ordea, ez dute konpromiso hartze hutsean geratzerik nahi. Udal baten ahalmena mugatua dela jakin arren, gai hau kudeatzeko asmoa agertu zuen gobernu taldeak, azken ezohiko osoko bilkuran.

Gure Pakea Elkarteak deialdia ugari prestatu ditu ikasturte hasieran
Irailak 30, asteazkena

08:15 Hernanira autobusez Laurok ondoko geltokitik eta Hernanitik Lasartera ibilaldia gero: Hernani-Urnieta-Lasarte. Iraupena: 3 ordu inguru. Hamaiketako (nork bere kontura) Lasarten. Egurdian, bazkaria nahi duenarentzat Artzabalaren. Prezioa: 12 euro. Izen emateko azken eguna: irailaren 25a.

Urriak 1, osteguna

16:30 Hitzaldia Artzabalgo ekitaldi aretoan, herritar ororentzat irekia: "Herentzia eta Testamentua".

Urriak 2, ostirala

Memoria ikastaroaren hasiera. Izen ematea zabalik irailaren 29ra arte.

Urriak 11, igandea

80 urtekoen omenaldia:

12:00 Meza.

14:00 Bazkaria Atxega Jauregian omendu, eta hauen senide eta lagunentzat. Izen ematea, irailaren 25era arte. Prezioa: 35 euro. Ordainketak kontuotatzen egin daitezke: Euskadiko Kutxa: 3035 0140 31 1401018416.

Kutxabank: 2095 5069 04 1060905378.

Antolatzailea: Gure Pakea Elkartea.

Muxurbil Antzerki Taldea

Muxurbil antzerki taldeak irailaren hasiko ditu klaseak. Haur, gazte eta helduak ongi etorriak izango dira.

■ Izen emateko:

muxurbil@gmail.com

675 71 23 83 (Ixabel)



Kima

MASAJE LEKUA

• KIROL MASAJEA • MASAJE TERAPEUTIKOA
• KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ALKORTA

AUTOZERBITZUA


Baserriko haragia

• Frutak • Barazkiak • Etxeko produktuak • Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

æek euskara praktikoa

Gereño ikasteko
para entendernos
pour se comprendre



Eman izena

30 urtean, 50.000 lagunek
ikasi dute euskara
gure 100 euskaltegietan



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On-line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

607 609 379

usurbil@aeek.org

www.munteri.blogspot.com.es

Usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
45 behea
20170 USURBIL



Sara Cuervo
Muntteri AEK 2010-2011

Ostiral honetan 'Jendartean bidaide', inklusibitatea hizpide duen antzezlan

Inklusibitatea izango da #Kilometroak15 egunak utziko digun ikasgaietako bat. Inklusibitateari buruzko gogoetak dira, hain zuzen, 'Jendartean bidaide' antzezlanak eragingo dizkigunak. Alex Telloren sinadura darama gidoiak, eta berarengana jo dugu azalpen bila.

NOAUA! 'Jendartean bidaide' obra zuk idatzi eta zuzendu duzu. Nola izan da obra honen sortze-prozesua?

Alex Tello. Xabier Mikel Errekondok deitu zidan, #Kilometroak15-en baitan inklusibitatearen gaia ari ziren lantzen eta ekimen ezberdinak bideratzeko asmoa zutela adierazi zidan. Antzezlan bat egiteko asmoa, besteak beste.

Egia aitortuko dizut. Une horretan, inklusibitatea hitz berria zen niretzat. Esklusibitatea, hori bai, hori ezagutzen nuen. Baina inklusibitatea ez. Eta pentsa, Gizarte Hezkuntza ikasi nuen, eta ondoren bost urtez aritu naiz kale hezitzaile. Eta halere, hitz hori arrotza egiten zitzaidan.

#Kilometroak15-en hasi dira inklusibitatea lantzen baina Kilometroak-en datozen edizioetan ere jarraipena eman nahi zaio, antza.

Bai, hala da. Aurtengo #Kilometroak15-en bitartez gaia nola enfokatu nahi zuten azaldu zidaten. Otsailean edo izan zen hori. Gaiaz eta proposamenaren inguruan hausnartzeko denbora eskatu nien eta martxoan hasi nintzen obra honen gidoiak idazten. Apirilerako lehen zirriborroa osatu nuen. Inklusibitatearen inguruan bada batzorde bat lanean eta haiei erakutsi nien gidoiak. Irakurri zuten eta baliogarri zela adierazi zidaten.



Alex Tellok idatzi du obra eta zuzendu lan taldea. Argazkian, antzezlaneko hainbat aktoreekin batera ageri da.

ALEX TELLO

"Antzerki talde baten martxa da 'Jendartean bidaide' obran kontatzen duguna. Eta antzerki talde horren helburua izango da ikasturte bukaeran antzezlan bat taularatzea"

Kirol egokituko federazioko lagunekin ere kontrastatu nuen eta orduan konturatu nintzen ideiak transmititzen zuela.

Hasieratik beraz, antzezlan bat idazteko proposamena egin zuten.

Skech moduko piezak egitea proposatu zidaten. Baina horretarako taldea osatu behar da lehenbizi, taldekideak ezagutu eta taldekideen ezaugarrien arabera skech-ak idatzi. Horrelako gauza bat bideratzeko ikasturte oso bat behar duzu. Eta hainbeste denbora ez genuen.

Hortaz, antzerki obra bat da zuku sortu duzuna, eta ez skech pieza

ezberdinez osaturiko lana.

Hala da. Apirilean aurkeztu nuen zirriborrotik azken gidoirarte arte asko aldatu da, istorioa hasierako berbera den arren.

Talde inklusibo bat ikustaraztea. Hori izan da gure asmoa. Ez inklusibitatea zer den edo zer ez den esplikatzea. Nire esparrura eraman dut ideia eta antzerki talde baten martxa da 'Jendartean bidaide' obran kontatzen duguna. Eta antzerki talde horren helburua izango da ikasturte bukaeran antzezlan bat taularatzea.

Badira aktore ezagunak, eta amateurak, nolabait esatearren.

Aktore profesionalak daude, profesionalak ez diren aktoreak, noizbait profesionalak izango direnak... Hor ere lan dezente hartu dut taldea osatzeko.

Estreinaldia ostiral honetan egingo duzue Sutegin. Emanaldi gehiago etorriko dira Sutegikoa eta gero? #Kilometroak15 egunean adibidez?

Hasiera batean, ideia bazen #Kilometroak15 egunean zer bait egitea. Baina talde honek

antzoki barruan ongi funtzionatuko du; kalean aritzeak ordea beste ezaugarri batzuk eskatzen ditu.

Behin Kilometroak pasa eta gero, segida izango ote duen, ba ez dakigu. Baina idealena hori litzateke. 2016an Kilometroak egingo den herrian adibidez, hau taularatzea, gai honek jarraipena izan dezan.

Jendartean bidaide

- Irailak 18 ostirala.
- 19:30ean, Sutegin
- Sarrera: 5 euro (aurretik Gattunk dendan).
- Iraupena: 65 m.
- Talde artistikoa: Ana Elordi, Anabel Arraiza, Bouchra Bagdadi, Enrike Amilibia, Eugeni Alzibar, Satxa Soriazu, Telmo Irureta, Xanti Agirrezabala.
- Zeinu hizkuntzan zuzeneko itzulpena: Jugatx Agirre.
- Eta lagun gehiago: Ana, Esteban, Irati, Miren.
- Zuzeneko musika Satxa Soriazuk joko du.
- Solasaldia Jurgi Olasagastik gidatuko du.
- Gidoia eta zuzendaritza: Alex Tello.

Alex Tello, antzezlanaren gidoilaria eta zuzendaria

“Pasarte batzuk oso hunkigarriak dira”

NOAUA! Zer kontatzen da eta zein tonu aukeratu duzue?

Alex Tello. Polita. Hori da nik obra honi ipintzen diodan goiburua. Oso gustura ikusten da. Musika ere badu, eta umorea. Baina ez dugu ikuslearen barrera bilatzen; irribarre batekin egotea baizik.

Edukia dago, noski: taldeki-de guztiek antzezlan bat egin nahi dute, eta obra bat egiteko elkartu dira. Mendekotasunaren kontua ageri da. Askotan, mendekotasuna ikusten dugu gurpildun aulkian doazen artean, baina menpekoak zeintzuk dira? Soilik “seinalatuak” ditugun horiek? Zeren modu batera edo bestera, denok gara menpeko. Hori da zabaldu nahi dugun ideia.

Aktore ezagunak batu dituzu, eta ikusle askorentzat guztiz ezezagunak direnak ere bai.

Aktore bakoitza bere izenarekin taularatuko da. Anabel Arraiza Anabel da obran. Xanti ere, obran Xanti da. Antzezten dute, baina lehen pertsonan.

Xantik adibidez, kanpotik begira ez du urritasunik



Hau da antzezlanaren mamia: antzezlan bat egin nahi dute, eta obra bat martxan jartzeko elkartuko dira.

ALEX TELLO

“Askotan, mendekotasuna ikusten dugu gurpildun aulkian doazen artean adibidez, baina menpekoak zeintzuk dira? Soilik “seinalatuak” ditugun horiek? Zeren modu batera edo bestera, denok gara menpeko”

edo mendekotasunik izango, baina juxtu bera izango da zailtasun gehien aurkituko dituen.

12 aktoreko obra, korala izango da hortaz?

Bai, momentu batzuk oso hunkigarriak dira. Eta entseguetan sortu dira pasarte horiek.

Sormen prozesu osoan, gidoia bizirik egon den seinale.

Hasieratik gaurdaino, gidoiak lau bertsio ezagutu ditu. Ez ditut gauzak kendu baina obra ontzen joan da.

Berezia da antzezlan, aipatu ditudan osagaiengatik. Eta aktore taldea ere handi samarra da. Bakoitzak bere ezaugarriak dauzka baina ez nuen bakoitzaren ezaugarrietan sakondu nahi. Pertsona-talde horrengan pentsatuz idatzi dut obra. Hori izan da bereziena.

VII Topa Eszenika

“Carbon Club” antzerkia kalean

Hainbat gogoeta sortarazi nahi duen ikuskizun bizia: adiskidetasunaren balioa, patu tragikoa, bizitzeko ausardia, sakoneko lurra, hurbil ditugun gerrak, errebindikazio komunak... Baina, batez ere, lan duin eta neketsuan bizitza eman zuten heroi anonimorik horiei eginiko omenaldia da.

■ Irailak 17 osteguna

■ 21:00etan, Mikel Laboa-tik.

■ Taldea: Markeliñe.

■ Iraupena: 60 min.



Heroi anonimoei eginiko omenaldia da Markeliñeren lana.

“Obarixo biaz”, Sutegin

Emakumezkoak dira taldeko antzezleak: 20 eta 60 urte arteko ondarrutarrak. Ana Elordi aktoreak zuzentzen du 2007. urtetik Traman & Brix taldea, eta berak zuzendutako antzerki tailer batean elkartutako partaideek osatzen dute taldea.

■ Irailak 19 larunbata

■ 20:00etan, Sutegin

■ Sarrera: 5 euro (egunean bertan).

■ Taldea: Traman & Brix Ondarrrutik.



Ana Elordik zuzentzen du Ondarroako antzerki taldea.

Kalea lasterkariena izango da igande goizean

Behobiarako prestaketa polita izango da batzuentzat. Beste-entzat, zapatilak ipini eta kirol pixka bat egiteko aitzakia. Izan ere, bi ibilbide daudenetik, denontzat da erakargarri Baxurde Krossa: kirola eginez gozatu nahi dutenentzat zein denbora on bat egitera abiatzen direnentzat. Igande honetako lasterketak herri erdigunea, Santueña, Zubieta eta Kalezar lotuko ditu. Izena emateko epea irailaren 19ra arte egongo da zabalik, edota sarean, www.kirolprobak.com atarian.

300 plaza

300 lasterkarientzako lekua egongo da. Txip horiarekin 10 eurotan apuntatu daiteke, 12 euroren truke txip zuriarekin.

Bi ibilbide aukeran

5,20 kilometrotakoa edota 10,75 kilometrotakoa. Frontoian hasi eta amaituko da proba. Lasterkariak



Igandean, goizeko 10:30ean abiatuko da Baxurde Krossa Mikel Laboa plazatik.

irailaren 20an, 10:30etarako abiatzeko prest egon beharko dute. Urtero moduan, hemen dituzue kontuan hartu beharreko beste ohar batzuk. Izen ematearen truke...

■ Parte hartzaile guztientzat asegurua.

■ Probaren erdian ur-hornidura (10,75km distantzian).

■ Froga amaieran hamaiketakoa.

■ Arropa uzteko leku bat izango da lasterketaren irteeratik gertu, frontoian, Mikel Laboa plazaren ondoan.

■ Dutxa zerbitzua Oiardo Kiroldegian.

Gattunk opariak

Aurten, Baxurde Krosseko sariketan

ere nabariko da #Kilometroak15 eguna ate joka dugula:

■ Lehen hiru gizon-emakumezkoentzat saria (10,75km distantzian). Usurbilgo Kilometroak ekimenaren aldeko Gattunk dendan gastatzeko bonoak.

■ Lasterketa motzean, bono bakarra.

■ Parte hartzaile guztientzat oparia.

Zozketak

Arrospide kutixi otarra, Atxegan bazkaria 2 lagunentzat, Patrin bazkaria 2 lagunentzat, Olarrondon bazkaria 2 lagunentzat, Kentuenen bazkaria 2 lagunentzat, Artzabalen bazkaria 2 lagunentzat, 2 tarta, marisiko otarra, kirolari profesionalak sinaturiko arropa.

Informazio gehiago

